



Udako goiz batean literaturzale bat... Sorkuntza literarioaren abenturaz



Uzt. 15 - Uzt. 17 2024

Kod. L05-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 15 - Uzt. 17 2024

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

30 ordu

Irakaskuntzako profesionalentzat jardueraren eskola-ordu kopurua

12,25 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

“*Se una notte d'inverno un viaggiatore*” Italo Calvino idazle italiar handiarengandik hartu dugu Uda Ikastaro honen izenburua: irakurketa bidaia zoragarri gisa eta irakurlea bidaiari ausart eta alaitzat egindako konparaketagatik.

Izan ere, Ikastaro honen helburua ikasleei literatur komunikazioaren bilatzen laguntzea da, hain beharrezkoa den istorioak asmatzera, irudikatzen eta kontatzen motibatzea. Narrazioak idazteko arteak asko du ofizioz, ez da jaiotzean jasotzen dugun dohaina soilik. Horretan hezi eta hazi daiteke. Irakurtzea eta idaztea txanpon bakarraren bi alderdiak dira, baso komunikatuak, literaturaren esperientzia egoki baten bi isurialdeak, bizikleta baten gurpilak. Ikastaro honetan bizikleta horren bi pedalei eragingo diegu gure sormen literarioa lantzeko asmoz: testu egokiak eta anitzak aztertu eta gozatu, eta horren ondoren, gure testu propioak idatzi. Beraz, literatur-tailer hau teoriko praktikoa izango da.

Italo Calvinok bere obraren izenburuan negua aipatzen zuen, *Baldin eta neguko gau batean bidaiari batek...* baina guk uda aldarrikatzen dugu, ikastaro modu ludiko bat nahi dugulako, udatiarra, oportetako, ialderdi teorikoen zorrotasunari ihes egin gabe.

Helburuak

Helburua zabala izango da: idazteko desira piztea, lo edo erdi lo dagoen irudimena xaxatzea, erresistentziak, beldurrak... biguntzen hastea. Gure baitan badago istorioak asmatzeko, imajinatzen behar bat, barneko ate zein leihoak irekitzeko, fikzio literarioak erraztu eta apendizaiak laguntzen duena gauzatzen.

Literatur kontaketa bat idazteko nahiari forma ematea, estimulu, jarraibide eta estrategia teoriko zein praktikoen bidez: gaia, argudioa, espazioa/denbora, pertsonaiak, narratzailearen ahotsa...

Irakurri hobeto idazteko/ idatzi arreta handiagoz irakurtzeko. Irakurri eta idatzi, hodi komunikatzaileak. Testuak eraldatzeko ariketak. Plagio sortzailea. Estilo ariketak. Blokeatzearen kudeaketa. Idatzitako testua talde irakurketan partekatzen motibatzea.

Idatzi irri egiteko (literatura eta umorea). Autodeskribapenerako idazketa (NIaren literatura. Identitatea eta autobiografia). Mikroipuin idazketa: ezaugarriak eta ereduak.

Zine-eszenak lagun izango ditugu, idazketaren azterketa eta praktika bultzatzeko. Literatur generoa, narrazio laburra izango da.

Metodologia: banakako zein talde lanean oinarrituta. Giro estimulatzaile eta ludikoa sortzea bilatuko dugu. Marko atsegin baina bideratua erraztu, non posible izango den idazteaz gozatzea eta, aldi berean, besteen testuez aberastea.

Horrelako literatura-tailerrean ez dago onik eta txarrik, bakoitza saiatu egingo da esperimendatzen, arriskatzen, jolasten, sormenarekin. Azalpen teorikoez gain, irakurleen eritzia ezinbestekoa izango da, taldekideak bihurtuko dira irakurle eta entzule.

Lankidetzak



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Programa

2024-07-15

09:00 - 09:15 Erregistroa

09:15 - 09:25 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Mariasun Landa Etxebeste | EHUko Literaturaren Didaktikako Irakasle ohia - Idazlea

09:25 - 11:00 Sorkuntza narratiboaren oinarriak. Kontakizunaren egitura, Irudimena lantzeko ideiak eta teknikak. Gure desioak ikertu ideiak harrapatzeko, kontakizunen hazi bihurtzeko. Blokeatzearen kudeaketa. Estrategia praktikoak. Teknika motibagarriak. Testu batzuen azterketa lagungarria. Film zatiak irudimenaren akuilugarriak izan daitezke eta zinea erabiliko dugu.

1.-GELTOKIA 2023-7-15

11:00 - 11:30 Atsedena

11:30 - 12:45 Irakurri eta idatzi, ontzi komunikatzaileak. Testu eraldaketak eta estilo ariketak. Narratzailea eta pertsonaia. Espazioak eta egoerak eraikitzea. Narratzaile ahotsa, espazio eta denbora aldaketa, narratzailearen ikuspuntua, narrazioaren egitura... Proposamen anitzak egin eta adibide argigarriak topatu.

12:45 - 14:00 Oroimena eta sentrazioak idaztea. Errealitatea, begiratzeko moduak. Narrazioak idazteko proposamenak eta saiakera. Haien talde irakurketa eta iruzkinak, giro lasai eta umoretsuan.

2024-07-16

09:00 - 10:30 09:00 - 10:30 Kontakizun laburrak eta mikroipuinak. Ezaugarriak eta adibideak. Hizkuntzaren ekonomia. Kultur erreferentziak. Elipsia. Umorea, ironia, paradoxa. Umorearen garrantzia literaturan. Ariketa praktikoak eta irakurketa taldean. Egile eta obren adibideak.

2.- GELTOKIA 2023-7-16

10:30 - 11:00 Atsedena

11:00 - 12:15 11:00 - 12:15 Kontaketa eta memoria. Literatura eta haurtzarora. Hurbilketa NI-aren literaturara. Autodeskribapenaren idazketa. Identitatea eta autobiografia. Zer den autofikzioa. Egile eta obren adibideak. Ekintza literarioak esperimintatu. Banakako lana taldean irakurri. Hastapenak kritikagintzan.

12:15 - 14:00 12.15- 14.00: Testuak idazteko proposamenak eta saiakera. Haien talde irakurketa eta iruzkinak, giro lasai eta umoretsuan.

2024-07-17

09:00 - 10:30 Etiketarik gabeko Literatura. Haur eta Gazte literaturaren (HGL) ezaugarriak. Txikiaren handitasuna literaturako esparru honetan. HGL eta eskola. HGL eta ideología.

3.-GELTOKIA 2023-7-17

10:30 - 11:00 Atsedena

11:00 - 12:15 Irudimena eta fantasia. Egile eta obren adibideak. Gianni Rodari: Irudimenaren gramatika. Ariketa praktikoak eta testu sortzaileen idazketa.

12:15 - 14:00 Azken uneko hutsune eta zalantzak argitzeko aukera. Bukatu gabeko azalpen eta lanak. Ikastaroaren ebaluaketa.

Zuzendaritza



Mariasun Landa Etxebeste

-, Idazle

Mariasun Landa Licenciada en Filosofía y Letras, ha sido profesora titular de Didáctica de la Literatura de la Universidad del País Vasco, UPV/EHU. Autora versátil, articulista y conferenciante. Sus obras de Literatura Infantil y Juvenil han sido traducidas a más de quince idiomas entre los que se encuentran el árabe, el coreano o el ruso. Entre otros premios ha recibido el Premio Euskadi (1991) y el Premio Nacional (2003) de Literatura Infantil y Juvenil. Por su contribución y proyección de la cultura vasca fue galardonada con el Premio Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa de Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales 2014. Es miembro de Jakiunde (Academia de las Ciencias, las Artes y las Letras).

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-07-15 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	68,00 EUR
UIK euskaraz	-	98,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	83,00 EUR
Matrikula exentzia	-	68,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	83,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	83,00 EUR
Elkar	-	83,00 EUR
Donostia Kultura	-	83,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	-	83,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	-	83,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa